# ETXE MISTERIOTSUA



Lehengo urtean, halloweneko eguna ahaztezina izan zen niretzat eta nire lagunentzat. Gauean, etxe misteriotsuaren tinbrea jo genuenean, atea bakarrik zabaldu zen zarata handi eta beldurgarri bat eginez ...

LIVEWORKSHEETS

# ARMAIRU MAGIKOA



Atzo zure armairuko ateak arropa janzteko zabaldu zenuenean, konturatu zinen magikoa zela. Horrela, armairuaren aurrean jarriz eta gustuko toki batean pentsatuz nahi zenuen tokira bidaiatzeko aukera izango zenuela ohartu zinen. Nora joango zinen? Nori kontatuko zenion? Norekin joango zinen?

LIVEWORKSHEETS

# MILA AZTARNAZ BETETAKO BASOA



Duela urte batzuk baso bat aurkitu nuen nire etxetik oso gertu zuhaitzez betea. Inoiz ez nintzen hainbeste gerturatu atzoko gauean bezala, gerturatzerakoan lurrean hainbat aztarna aurkitu nituen. Asteburu honetan basora sartu eta aztarnak jarraituko ditut ikusteko ...

LIVEWORKSHEETS

# ESTRALURTARRAK NIRE IKASTOLAN




Gaur goizean, goiz esnatu naiz ikastolara joateko. Inoiz baino lehenago iritsi naiz eta gelara sartzean konturatu naiz gure gelan estralurtarrak zeudela.

LIVEWORKSHEETS

# KAXA HIZTUNA



Gaur goizean nire etxeko lorategian oinez ari nintzela paretaren ondoan kaxa bat ikusi dut. Bat batean ahots bat entzun dut. Lagundu hemendik irteten! Ustekabe handi hartu dut konturatu naizenean ahots hori kaxaren barrutik zetorrela.

LIVEWORKSHEETS

# GOZOKI MAGIKOAK



Asteburuan, nire lehengusuekin goxoki denda berri batera joan ginen. Gozokiak jaten hasi ginenean konturatu ginen gure oinak lurretik askatzen ari zirela eta bat batean hegan hasi ginen.

LIVEWORKSHEETS

# AITONAREN MAKINAK



Nire aitona asmatzailea da. Lehengo egunean bera ikustera joan nintzen eta bakarrik utzi zidan bere laborategian. Bertan makina asko zeuden botoi askorekin, guztien artean denboraren makina aurkitu nuen eta bertan sartzea erabaki nuen ...

LIVEWORKSHEETS